

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

4760

Gizarteratze Ibilbideetan parte hartzen duten pertsonentzako dirulaguntzen 2012ko deialdia

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2012ko abuztuaren 2an egindako bilkuran, laguntza deialdi hau onartzea eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen deialdiaren

ONARRIAK**1. oinarria. Deialdiaren xedea**

Arabako lurralde historikoan, Gasteizko udalerrian izan ezik, gizarteratze ibilbideetan parte hartzen duten pertsonentzako dirulaguntza eskaera aurkezteko epea irekitzea, ekainaren 12ko Diputatuen Kontseiluaren 32/2012 Foru Dekretu (ALHAO, 72 zk., 2012ko ekainaren 22a) bidez onartutako araudiaren arabera. Epe hori deialdi hau ALHAO argitaratzen denean hasi eta 2012ko abenduaren 31n bukatuko da.

Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak (32/2012 FDren 3. artikulua)

a) Prestakuntza aldiak egiteko eta gizartetik baztertuta dauden pertsonen gizarteratze beharrak asetzen dituzten zerbitzu edo eguneko zentroetan laguntza jasotzeko joan-etorrietako gastuak.

b) Prestakuntza prozesu batean parte hartzen ari den pertsonaren menpeko diren pertsonak behar bezala zaindu eta arreta eskaintzearen ondoriozko gastuak.

c) B1 gidabaimena eskuratzeko beharrezkoa den prestakuntza teoriko eta praktikokoaren ondoriozko gastuak.

2. oinarria. Onuradunak. Baldintza orokorrak eta berariazkoak (32/2012 FDren 4. artikulua)

Gizarteratze ibilbideetan parte hartzen duten pertsonak izan ahalko dira prestazio hauen onuradun, baldin eta betekizun orokor hauek betetzen badituzte:

a) 18 urte baino gehiago eta 65 urte baino gutxiago izatea.

b) Zein udalerritan eskatzen den prestazioa, bertan erroldatuta egotea eta benetan bizilekua izatea, eskabidea aurkeztu baino 6 hilabete lehenagotik gutxienez, 3. artikuluko a) eta b) kontzeptuetarako, eta 3 urte lehenagotik gutxienez, aurreko artikuluko c) kontzepturako.

c) Gizarte bazterketaren diagnostiko soziala edukitzea.

d) Gizarteratze prozesuan egotea, eta formalizatuta edukitzea gizarteratze hitzarmena edota banakako arreta plana.

e) Foru dekretu honetako hirugarren artikuluan jasotzen diren gastu espezifikoetara aurre egiteko adina baliabide ez izatea. Behar adina baliabide ez dutela ulertuko da 6. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

2.- Laguntza motaren bat jaso ahal izateko bete behar diren baldintza berariazkoen artean, honako hauek ezartzen dira:

a) Prestakuntza aldietan joan-etorrietako gastuak ordaintzeko prestazioa eskatzen denean, baztertu egingo dira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren arabera ofizialak diren ikasketa guztiak.

b) Pertsona zainzailea prestakuntza prozesu batean parte hartzen ari den bitartean haren menpeko pertsonak behar bezala zaintzeko eta arreta emateko gastuetarako prestazioa eskatzen denean, prestazioa emango da baldin eta ezinezkoa bada familia unitateko beste kideren batek menpeko pertsonak zaintzea. Ezinbestekoa izango da legezko lan kontratua egitea, Etxeko zerbitzuko langileen lan harreman berezia arautzen duen azaroaren 14ko 1620/2011 Errege Dekretuaren arabera.

INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

4760

Convocatoria de ayuda económica para personas que participen en Itinerarios de Inclusión, correspondiente al 2012

El Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, en sesión celebrada el 2 de agosto de 2012, ha resuelto probar y publicar la presente Convocatoria de Ayudas, que se registrará por las siguientes

BASES**Base 1ª. Objeto de la convocatoria**

Abrir el plazo de presentación de solicitudes, desde la publicación en el BOTHA hasta el 31 de diciembre de 2012, para la concesión de la prestación económica para personas que participen en itinerarios de inclusión social en el Territorio Histórico de Álava, exceptuando el municipio de Vitoria-Gasteiz, de acuerdo con normativa reguladora aprobado por Decreto Foral 32/2012, de 12 de junio, del Consejo de Diputados publicado en el BOTHA nº 72 de 22 de junio de 2012.

Los conceptos subvencionables (art. 3 del DF 32/2012) son los siguientes:

a) Gastos derivados de los desplazamientos con motivo del acceso a periodos formativos, y a los Servicios o Centros de Día para atender necesidades de inclusión social para personas en situación de exclusión y marginación.

b) Los derivados del correcto cuidado y atención de personas dependientes de aquella persona que está participando en un proceso formativo.

c) Los derivados de la formación teórica y práctica para la obtención del Carnet de conducir B1.

Base 2ª. Personas Beneficiarias. Requisitos generales y específicos (art. 4 del DF 32/2012)

Podrán ser beneficiarias de estas prestaciones, las personas que participen en itinerarios de inclusión social, y que cumplan los siguientes requisitos generales:

a) Ser mayor de 18 años y menor de 65 años.

b) Estar empadronadas y tener residencia efectiva en el municipio en el que se solicita la prestación con una antigüedad de al menos 6 meses de antelación a la fecha de presentación de la solicitud para los conceptos a) y b) del artículo 3 y de al menos 3 años para el concepto c) del artículo anterior.

c) Disponer de un diagnóstico social de exclusión social.

d) Encontrarse en proceso de inclusión social y haber formalizado el correspondiente Convenio de Inclusión y/o el Plan personalizado de atención.

e) No disponer de recursos suficientes con los que afrontar los gastos específicos contemplados en el artículo 3 de la presente normativa. Se considerará que carecen de recursos suficientes quienes reúnan los requisitos exigidos en el artículo 6 siguiente.

2.- Entre los requisitos específicos que deben de cumplirse a efectos de poder beneficiarse de los diferentes tipos de ayudas, se establecen los siguientes:

a) En los casos en que la prestación se solicite para sufragar los gastos derivados del desplazamiento con motivo del acceso a periodos formativos, quedan exceptuados todos los estudios oficiales según la Ley orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.

b) En los casos en que se solicite la prestación para sufragar gastos derivados del correcto cuidado y atención de personas dependientes en tanto que la persona cuidadora esté participando en un proceso formativo, la prestación podrá concederse siempre y cuando no haya posibilidad de que los cuidados sean prestados por otro miembro de la unidad familiar. A tal fin, será imprescindible la formalización de un contrato legal de trabajo, según Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.

c) B1 gidabaimena eskuratzeko beharrezkoa den prestakuntza teoriko eta praktikoa onduzko gastuak ordaintzeko prestazioa eskatzen denean, baldintza hauek bete beharko dira:

- 25 urte baino gehiago izatea. 18 eta 25 urte bitartekoak arau horretatik salbuetsiko dira baldin eta ekonomikoki euren kargu badute adingaberen bat edo gutxienez ehuneko 33ko desgaitasuna edo 1. mailako 1. graduako mendekotasun kalifikazioa duen helduren bat.

- Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko herritarra izatea edo legezko egoiliar baimena izatea.

3. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa (32/2012 FDren 6. artikulua)

Honela kalkulatu da prestazioaren gehieneko zenbatekoa:

a) Behar adina baliabide ez izatearen baldintza betetzat emateko, kontuan hartuko da hurrengo baldintza guzti-guztiak bete behar direla:

- Eskatzaileak eta beraren bizikidetzaren unitateko gainerako kideek hilean dituzten diru sarrerak txikiagoak izatea diru sarrerak bermatzeko errentaren (unitateko kideen arabera legokiekkeen errenta) hileko zenbatekoa baino.

- Ez eskatzaileak ez beraren bizikidetzaren unitateko beste inork ez edukitzea inongo ondasun higiezinik, ohiko etxebizitza izan ezik, eta ohiko etxebizitzak aparteko balioa ez izatea, arauz zehaztuko diren irizpideen arabera.

- Eskatzaileak eta beraren bizikidetzaren unitateko gainerako kideek dituzten diru kopuru eta baloreen zenbatekoa ezin da izan ondokoa baino gehiago: batere baliabiderik eduki ezean bizikidetzaren unitateko kideen kopuru osoaren arabera sarrerak bermatzeko jasoko luketen errentaren hileko zenbatekoa halako lau.

- Bizikidetzaren unitatearen ondarearen balioa ezin da izan ondokoa baino gehiago: batere baliabiderik eduki ezean gizarteratzeko eta gizarte babesarako diru sarrerak bermatzeko jasoko luketen errentaren urteko zenbatekoa halako lau.

b) Araudi honetan xedatutakoari dagokionez, bizikidetzaren unitatearen izango da diru sarrerak bermatzeko errentaren ondorioetarako une bakoitzean ezartzen dena.

c) Prestazioaren ehuneko 100eko finantzaketa ezartzeko zenbatekoa zehazteko, urtero Eusko Jaurlaritzaren agindu bidez diru sarrerak bermatzeko errentarako bizikidetzaren unitateko kideen kopuruaren arabera onartzen diren zenbatekoei erreparatu zaie.

d) Zenbat emango den zehazteko, diruz lagundutako xedearen kostuari behar den portzentajea aplikatu zaio, kontuan izanik eskatzailearen eta beraren bizikidetzaren unitateko gainerako kideen baliabideen maila. Urtero, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuaren foru aginduen bidez, zenbatekoa zehazteko aplikatu beharreko portzentajeen taula eguneratu ahal izango da.

Honako taula hau aplikatu da 2012ko ekitaldian:

BU-KO KIDE KOPURUA	ORDAINDU DAITEKEEN GASTUAREN ZENBATEKOAREN EHUNEKOA					
	% 100	% 80	% 60	% 40	% 20	% 0
1	≤ 612,41	734,89	857,37	979,85	1.102,33	> 1.102,33
2	≤ 786,39	943,67	1.100,95	1.258,23	1.415,51	> 1.415,51
3 edo gehiago	≤ 869,90	1.043,88	1.217,86	1.391,84	1.565,82	> 1.565,82

4. oinarria. Eskaerak aurkeztea

Araudi honen xede diren laguntzak emateko epea interesdunak edo haren legezko ordezkariak eskaera egiten duenean hasiko da. Eskaera hori eredu normalizatuan egin behar da. Zein udalerritan bizi, hango oinarriko gizarte zerbitzuetan jasoko da eredu, 32/2012 Foru Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) En el caso de que la prestación se solicite para sufragar gastos derivados de la formación teórica y práctica para la obtención del Carnet de conducir B1, deberán reunirse los siguientes requisitos:

- Tener más de 25 años, quedando exceptuadas quienes teniendo una edad comprendida entre 18 y 25 años, tengan económicamente a su cargo personas menores de edad o a personas adultas con discapacidad igual o superior al 33 por ciento o con calificación de dependencia igual o superior al grado 1 nivel 1.

- Poseer nacionalidad española, ser miembro de la Unión Europea o poseer permiso de residencia legal.

Base 3ª. Cuantía de la subvención (art. 6 del DF 32/2012)

La cuantía máxima de la prestación a reconocer, se establecerá de la siguiente forma:

a) A fin de determinar y fijar el cumplimiento del requisito de insuficiencia de recursos, se considerará que no se dispone de los mismos cuando se cumplan todas y cada una de las condiciones siguientes:

- Que la persona solicitante y los demás miembros de su unidad de convivencia, dispongan de unos ingresos mensuales inferiores a la cuantía mensual de la renta de garantía de ingresos que pudiera corresponder en función del número de miembros de la misma.

- Que ni la persona solicitante ni ninguno de los miembros de su unidad de convivencia dispongan de ningún bien inmueble, a excepción de la vivienda habitual, siempre que la misma no tenga un valor excepcional, en los términos que se determinen reglamentariamente.

- Que la persona solicitante y los demás miembros de su unidad de convivencia, no dispongan de dinero y valores por una cuantía máxima equivalente a cuatro veces la cuantía mensual de la modalidad de la renta de garantía de ingresos que les pudiera corresponder en el supuesto de ausencia total de recursos, en función del número total de miembros de la unidad de convivencia.

- La unidad de convivencia no podrá disponer de un patrimonio cuyo valor sea superior a cuatro veces la cuantía anual de la renta de garantía de ingresos para la inclusión y protección social que les pudiera corresponder, en el supuesto de ausencia total de recursos.

b) A los efectos de lo dispuesto en la presente normativa, la unidad de convivencia será la misma que en cada momento se establezca a efectos de la prestación Renta de Garantía de Ingresos.

c) La determinación del importe para la fijación de la financiación del 100 por ciento de la prestación se realizará en función de las cuantías aprobadas anualmente según el número de miembros de la unidad de convivencia mediante Orden del Gobierno Vasco para la renta de garantía de ingresos.

d) La determinación de la cuantía a conceder se establecerá mediante la aplicación del correspondiente porcentaje a aplicar sobre el coste de la finalidad subvencionada, teniendo en cuenta el nivel de recursos de la persona solicitante y de los demás miembros de su unidad de convivencia. Con carácter anual mediante Orden Foral de la Diputada del Departamento de Servicios Sociales, podrá actualizarse la tabla del porcentaje a aplicar para la determinación de la cuantía.

Para el ejercicio 2012, será de aplicación la siguiente tabla:

Nº MIEMBROS DE LA UC	PORCENTAJE DE LA CUANTÍA DEL GASTO SUSCEPTIBLE DE CUBRIRSE					
	100%	80%	60%	40%	20%	0%
1	≤ 612,41	734,89	857,37	979,85	1.102,33	> 1.102,33
2	≤ 786,39	943,67	1.100,95	1.258,23	1.415,51	> 1.415,51
3 o más	≤ 869,90	1.043,88	1.217,86	1.391,84	1.565,82	> 1.565,82

Base 4ª. Presentación de solicitudes

El procedimiento para la concesión de las ayudas objeto de la presente normativa se iniciará a solicitud de la persona interesada, en su caso, de su representante legal y se formalizarán en el correspondiente modelo de instancia normalizada que se facilitará en los Servicios Sociales de Base del municipio de residencia, tal como se establece en el art. 7 del Decreto Foral 32/2012.

5. oinarria. Finantzaketa eta ordainketa

Deialdi honen babesean emango diren laguntzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2012ko aurrekontuko 80204.0400.460.00.15 aurrekontu partidaren (gizarteratze ibilbideetan parte hartzen duten pertsonentzako laguntzak) kontura emango dira; gehienez ere, 40.000,00 euro emango dira.

32/2012 Foru Dekretuaren 16., 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoaren arabera ordaindu eta pilotuko dira laguntzak eta zurituko gastuak.

6. oinarria. Eskerak izapidetzea eta ebaztea

GOFEn Gizartegintza Arloaren Zuzendariorde Teknika da prozedura izapidetzeko organo eskuduna. Organo horrek aurkeztuko dio Zuzendaritza-kudeatzailetzari ebazpen proposamena, ebatzi dezan.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-kudeatzailetzari dagokio eskatzailearen araudi honen babesean izapidetutako espedientei buruzko ebazpenak ematea.

Ematen den ebazpenaren bitartez, eskatutako prestazioa onartu ala ukatuko da, eta bertan, ondorengo alderdi hauek jaso beharko dira:

a. Prestazioa ematea egokia den ala ez eta baterako edo besterako arrazoiak.

b. Prestazioaren modalitatea eta hura emateko epea.

c. Emango den prestazioaren zenbatekoa eta zer eratan ordainduko den.

Gehienez ere hilabete izango da eskerak ebazteko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eskaera sartzen denetik aurrera. Epe zenbaketa horretarako, ez da kontuan hartuko espedientearen etenda dagoen denbora, baldin eta etete horren arrazoiak eskatzaileari badauzkatu. Epe hori berariazko ebazpenik gabe igarotzen bada, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen berariazko ebazteko duen betebeharraren gorabehera.

Erabakiak nahikoa arrazoituta egon beharko du eta eskaera egin duen pertsonari helaraziko zaio, bertan, erabakiaren kontra Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren aurrean berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahaliko da, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 4/1999 Legearen 114. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 2a.– Administrazio Kontseiluko lehendakaria, MARTA ALAÑA ALONSO.

Base 5ª. Financiación y pago

Las ayudas que se concedan al amparo de esta convocatoria, se imputarán al crédito de la partida presupuestaria 80204.0400.460.00.15 "Ayudas Individuales a personas en itinerarios de inserción", incluida en el Presupuesto de 2012 del Instituto Foral de Bienestar Social, con un límite máximo de 40.000,00 euros.

En lo relativo a forma de pago, justificación de los gastos y concurrencia de ayudas se tramitará de acuerdo con lo establecido en los artículos 16, 17 y 18 del Decreto Foral 32/2012.

Base 6ª. Instrucción y resolución de las solicitudes

El órgano colegiado, competente para la ordenación e instrucción del procedimiento, es la Subdirección Técnica del Área de Intervención Social del IFBS, el cual formulará la oportuna propuesta de resolución a la Dirección Gerencia para su resolución.

Corresponde a la Dirección-Gerencia del Instituto Foral de Bienestar Social la competencia para resolver los expedientes tramitados al amparo de la presente Normativa.

La resolución que al efecto se dicte reconocerá o denegará la prestación solicitada y deberá contener los siguientes aspectos:

a. Si procede o no la concesión de la misma y motivación de la propuesta.

b. Modalidad de la prestación y período de concesión.

c. Cuantía de la prestación a otorgar y forma de pago en la que se hará efectiva.

El plazo máximo para resolver las solicitudes será de un mes, a partir de la fecha de entrada en el Instituto Foral de Bienestar Social. No se computará a estos efectos el período de tiempo durante el cual el expediente se encuentre paralizado por causas imputables a la persona solicitante. Transcurrido dicho plazo sin que se haya dictado resolución expresa, se entenderá desestimada la solicitud, sin perjuicio del deber del Instituto Foral de Bienestar Social de resolver expresamente lo que proceda.

La Resolución, que deberá estar suficientemente motivada será trasladada a la persona solicitante, con indicación de que contra la misma podrá interponer recurso de alzada ante el Consejo de Administración del Instituto Foral en los términos establecidos en el artículo 114 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de agosto de 2012.– La presidenta del Consejo de Administración, MARTA ALAÑA ALONSO.